



Espediente-zk.: 002/20
Baldintza Administratibo Zehatzen Agiriaren KARATULA

Kontratu mota: **ZERBITZU-KONTRATUA**
Prozedura: **IREKIA**

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Definizioa: Kontratuaren 1. lotearen xedea Haurreskolak Partzuergoak Haurreskolak Partzuergoa parte den prozedura juridiko guztietarako zerbitzu juridiko profesionalak kontratatzea izango da, bai eta bere jarduera garatzeko behar duen aholkularitza judiziala ere.

2. lotearen helburua Datuak Babesteko Ordezkarri baten zerbitzuak kontratatzea izango da, Haurreskolak Partzuergoaren barruan datu pertsonalen babesaren arloko araudia betetzearekin lotutako jardueri babesari eta laguntza emateko, bai eta Haurreskolak Partzuergoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduari egiten dizkion datu pertsonalen tratamenduen ezarpena kontrolatzeko ere.

Prestazio horien garapena Preskripzio Teknikoen Agiriaren 2. artikuluan jasotzen da.

1.2.- Kontratuaren bidez bete behar diren premia administratiboak: 1. loteko kontratuaren bidez, aholkularitza juridikoko kontratu bat sinatu nahi da, Haurreskolak Partzuergoak izan dezakeen edozein auziren aurrean zerbitzu judizial profesionalak jaso ahal izateko. Era berean, Haurreskolak Partzuergoak behar duen aholkularitza juridikoko edozein jardueraren aurrean laguntza jaso nahi da, horretarako gaur egun baliabide propio nahikorik ez dagoelako.

2. loteko kontratuaren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduari helburuak bete nahi dira. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez.

1.3.- Sortetan zatiketa: Bai.

1. lotea: Aholkularitza eta ordezkaritza juridikoko zerbitzuak.

2. lotea: Datu pertsonalen segurtasunaren eta babesaren arloko aholkularitzari dagozkion zerbitzuak.

1.4.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: Bai.

1.5.- CPA-2008 sailkapen estatistikoaren kodea (451/2008 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko apirilaren 23koa): 69.10.1 Zerbitzu juridikoak eta 74.90.1 Zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak b.i.s.g.

1.6.- CPV nomenklaturaren kodea (Europako Batzordearen 213/2008 (EE) Erregelamendua, 2007ko azaroaren 28koa, kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV) onartu zuen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena): 79100000-5 Zerbitzu juridikoak eta 79000000-4 Enpresentzako zerbitzuak: legeria, marketina, aholkularitza, langileen hautaketa, inprenta eta segurtasuna.

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK.

Baldintza administratibo zehatzen agiriko 3. klausulan adierazi direnak.

3.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

Hauxe da, publikotasun eta adjudikatzeko prozeduraren ondorioetarako kontratuaren balio zenbatetsia; 239.500 € (BEZa kenduta), ondorengo loteetan banatuta:

1. lotea: 207.000 euro (BEZik gabe)

2. lotea: 32.500 € (BEZik gabe)

Zehazki, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, aurreko 48 hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen balio erreala hartu da kontuan. Balio hori zuzendu egin da, gerta litezkeen kantitate edo balioetan aurreikus daitezkeen aldaketak kontuan hartzeko, kontratuaren iraupen osoan zenbatuta, luzapenak barne.

Kalkulatutako balio hori egindako urteko orduen honako aurreikuspen hauen arabera kalkulatu da, gutxi gorabeherakoak eta orientagarriak, eta lan-kostu zuzenari dagozkio:

1. Lotea: 360 ordu/urteko x 115 €/ orduko = 41.400 €/ urteko

2. Lotea: 100 ordu/urteko x 65 €/orduko = 6.500 €/ urteko

Hala ere, Haurreskolak Partzuergoa ez da behartzen ordu kopuru jakin bat kontsumitzera, bere beharren menpe dagoelako.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA *(eskaintzek ezin dituzte gainditu adierazitako guztizko zenbatekoak).*

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 115.918 euro da (2 urte), 95.800 euro + 20.118 euro BEZarenak.

1. lotea: 82.800 euro + 17.388 euro BEZarenak = 100.188 euro

2. lotea: 13.000 euro + 2.730 euro BEZarenak = 15.730 euro

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua zehazteko (gutxi gorabeherakoa edo orientagarria), kontuan hartu da haren banakapena zuzeneko kostuetan (lehengaiak eta langileen kostua), zeharkako kostuetan (ekoizpen-gastu orokorrak), egitura-kostuetan (gainerako ustiapen-gastuak, administrazioko eta zerbitzu zentralizatuetao gastu orokorrak), finantza-kostuetan eta kontratistaren mozkin industrialean. Banakatze zuzena zenbatesteko, kontuan hartu dira Espainiako Bankuaren Balantze Zentralaren datu-baseetan jasotako datu estatistikoak ere (sozietate ez-finantzarioen ratio sektorialak).

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aurrekontu hori honela banakatzen da:

1. LOTEA

ZUZENeko KOSTUAK	29,04%	24.042,74€
EKOIZPENAREN ZEHARKAKO KOSTUAK	27,03%	22.383,22€
EGITURA KOSTUAK	36,01%	29.812,80€
KOSTU FINANTZARIOA	0,43%	359,52€
INDUSTRIA-ONURA	7,49%	6.201,72€
GUZTIRA (BEZ GABE)	100%	82.800€
BEZ-A	21%	17.388€
GUZTIRA (BEZ BARNE)		100.188€

2. LOTEA

ZUZENEKO KOSTUAK	29,04%	3.774,83€
EKOIZPENAREN ZEHARKAKO KOSTUAK	27,03%	3.514,27€
EGITURA KOSTUAK	36,01%	4.680,75€
KOSTU FINANTZARIOA	0,43%	56,45€
INDUSTRIA-ONURA	7,49%	973,70€
GUZTIRA (BEZ GABE)	100%	13.000€
BEZ-A	21%	2.730€
GUZTIRA (BEZ BARNE)		15.730€

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK.

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Lizitaziorako prezio unitarioak baldintza teknikoen agiriko 3.puntuan zehaztutakoaren arabera kalkulatzen dira.

Prezio horiek maximoak dira; beraz, gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua:

- Ordainketa bakarra: Ez.
- Ordainketa partzialak: Bai.

Ordainketa partzialak honako maiztasun honekin egingo dira: hilero, kontratazio-organoaren oniritzia beharko duen faktura aurkeztu ondoren.

Kontratuaren xede diren prestazioengatik ordaindu beharreko hileko zenbatekoa, hilabete horretan benetan emandako unitateak kontratistak eskainitako prezio unitarioa aplikatuz ateratzen dena izango da.

Kontratistak hileko faktura xehatua egin beharko du 15 egun naturaleko epean, zerbitzuei dagokien hilabetea amaitzen denetik hasita. Fakturarekin batera, dagokion hilean egindako lanen zerrenda emango da, zeregin bakoitza egin den data eta lan bakoitzean benetan egindako orduak zehaztuta.

Ez da ordainduko agiri honetan aurreikusitako kontratu-helburutik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, ez eta Haurreskolak Partzuergoak aldez aurretik eskatu ez duenik ere.

Kontratuaren finantzaketari dagokionez, kontratazio hau aldez aurretik izapidetuko denez, eta

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legearen 117.2 artikulua araber, Haurreskolak Partzuergoak konpromisoa hartzen du kontratu honen ondoriozko betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aurrekontu-esleipen egokia ezartzeko urtero, kontratua gauzatzean ukituko diren etorkizuneko ekitaldiei dagokienez, dagozkien aurrekontu-partiden kargura, eta kontratuaren esleipena kreditu egokia eta nahikoa egotearen etete-baldintzaren mende geratuko da. Ekitaldian bertatik eratorritako betebeharrak finantzatzeko

5.3.- Konturako ordainketak, prestalanak egiteagatik: Ez dago halakorik.

5.4.- Prezioak berrikustea: Kontratu honetan ez da prezioak berrikusiko, SPKLren 103.1 artikulua araber.



6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN EXEKUZIO-EPEA ETA IRAUPENA.

6.1.- Kontratuaren iraupena: 2022ko abenduak 31-ra arte.

6.2.- Hasteko eguna: 2021ko urtarrilak 1.

6.3.- Kontratua luzatzea: Bai.

- Luzapenaren iraupena: urtero, beste hiru urtetan, zehazki 2025eko abenduak 31ra arte.

- Prezioa eguneratzea: Ez.

7.- ARGITALPEN-GASTUAK. Esleipendunak HAKLEOren 67.2 artikulua arabera ordaindu behar dituen publizitate-gastuen gehieneko zenbatekoa: ez dira jasotzen.

8.- BERMEAK.

8.1.- Behin-behineko bermea: Ez.

8.2.- Behin betiko bermea: Bai, esleipen-zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

8.3.- Berme osagarria: Ez.

8.4.- Zilegi da bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez egiaztatzea bermea eratu izana: Ez.

8.5.- Zilegi da bermeak prezioa atxikita eratzea: Ez.

8.6.- Prestazioaren zati bat bakarrik onartzen denean, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: Ez.

Bermeak honen alde eratuko dira: HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN alde. IFZ: P0100385D.

9.- ASEGURUAK. Enpresa esleipendunak bere jarduera-eremuko legeriak eskatzen dituen nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta AKPPn aurreikusitakoak ere. Aseguru horren zenbatekoa lote bakoitzaren balio zenbatetsiari dagokiona izango da gutxienez.

10.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO LEKUA: esleitua izan den enpresak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dituen zentro edo egoitza ezberdinetan.

11.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK.

Kontratu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 6. artikuluan jasotako bi hizkuntza ofizialen araubidea bete behar du -bi hizkuntza ofizialen erabilera Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko oinarritzko 10/1982 Legean dago araututa, baita hura garatzen duten arauetan ere-.

Bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira kontratua exekutatzean, horixe baita kontratuaren xede den prestazioa exekutatzeko baldintzetako bat. Baldintza hori ez betetzeak kontratu honetako beste zeinahi klausula ez betetzearen ondorio berberak izango ditu. Hala ere, kontratua exekutatzeko baldintza bereziak direla-eta, hura ofiziala ez den beste hizkuntza batean edo batzuetan exekutatu behar dela ezar daiteke baldintza teknikoan agirian.

Kontratua exekutatzean, bidenabar, baldintza-agiriko hizkuntzari buruzko klausulan ezarritako baldintza zehatzak beteko dira.



12.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Baldintza-agirietan ezarri direnak.

13.- KONTRATUEN ARABERAKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK.

Baldintza-agirietan ezarri direnak.

14.- KONTRATUEN ARABERAKO ZIGORRAK.

- a) Berandutzeagatik: SPKL-aren 193 artikuluan ezarritakoak.
- b) Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik: kontratu-aurrekontuaren % 10era arte (SPKL-aren 192.1 art.).
- c) Kontratuan definitutako prestazioak ez betetzeagatik (SPKL-ko 192.2 artikulua): BAA-n edo deskribapen dokumentuan zehazten diren zigorrak jartzea edo kontratua bertan behera uztea erabakiko da.
- d) SPKL-aren 215 artikuluan ezarri diren azpikontratazio-baldintzaren bat edo baldintza-agiri honen karatulan azpikontrataziorako ezarri den gehieneko muga ez betetzeagatik: azpikontratuaren % 50era arte.
- e) Kontratua exekutatzeke baldintza bereziak gaizki betetzeagatik: kontratu-aurrekontuaren % 10era arte (SPKL-aren 202.3 art.).

15.- AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratatzen den prestazioaren zati bat egitea, SPKLren 215. artikuluan ezarritakoaren arabera.

16.- KONTRATUA ALDATZEA.

Aurreikusi gabeko aldaketak: aurreikusi gabeko aldaketak soilik sartu ahal izango dira interes publikoko arrazoiengatik eta SPKLren 205. artikulua.

17.- PRESTAZIOEN BERMEALDIAK: Ez dagokio.

18.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK.

SPKL-ko 211. artikuluan ezarritakoez gain, honako hauek dira kontratua suntsiarazteko kausa espezifikoak:

- Kontratuaren xede den prestazioa eta eskaintzako edukiak ez betetzea edo gaizki betetzea.
- Kontratuan ezarritako funtsezko betebeharrak ez betetzea.
- Lan-arloko segurtasunari eta osasunari buruzko araudia eta klausulak ez betetzea.

II.- KONTRATU-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK, ENPRESEN ETA ESKAINTZEN PARTE-HARTZEA ETA HAUTAKETA.

19.- KONTRATAZIO-ORGANOA ETA INFORMAZIOA ETA BALDINTZA-AGIRIAK ESKURATZEA.

19.1.- Entitate adjudikatzailea: HAURRESKOLAK PARTZUERGOKOA.



19.2.- Organoak zehaztea:

19.2.1.- Kontratazio-organoa: Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea.

19.2.2.- Kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoa: Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

19.3.- Espedientea izapidetzen duen bulegoa: HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO Ekonomia Kudeaketa Zerbitzua.

Helbidea: Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina

Herria eta posta-kodea: Eibar - 20600

19.4.- Harremanetarako:

- **Telefono-zk.:** 943.82.19.59
- **Faxa:** 943.12.07.37
- **Helbide elektronikoa:** ekonomia@haurreskolak.eus

19.5.- Kontratatzailearen profila, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria Interneten: www.haurreskolak.eus

19.6.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko azken eguna: 2020ko irailak 11.

20.- AURREKONTU-IZENDAPENA: 0000.421.23200.

20.1.- Gastua kofinantzatuta dago: Ez.

20.2.- Aurretiko izapidetzea: Ez.

21.- IZAPIDEAK, ETA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

21.1.- Izapidetzea:

- Arrunta: Bai.

21.2.- Prozedura:

- Irekia: Bai.
- Prezioa da eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra: Ez.
- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide daude: Bai.

22.- LIZITAZIO ETA KONTRATAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA: Ez.

23.- ESKAINTZAK EDO PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

23.1.- Aurkezteko azken eguna eta ordua: 2020ko irailak 18ra arte, 13:00ak baino lehen.

23.2.- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko modua: A, B eta C gutun-azalak, baldintza administratibo zehatzen agirian eta karatula honetako dagokien puntuetan adierazten den edukiarekin.

- A gutun-azala: Administrazio-dokumentazioa.
- B gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa.
- C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.



Gutun-azal guztiak behar bezala identifikatu behar dira, honako datu hauek jasota:

GUTUN-AZALA: Kontratuaren xedea: Espediente-zenbakia: Sozietatearen izena: IFK: Sozietatearen helbidea: Ahalordedunaren izena: NANA: Harremanetarako telefonoa:	DOKUMENTAZIOA:
Harremanetarako pertsona: Helbide elektronikoa:	

23.3.- Aurkeztu behar den dokumentazioa:

A GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA

- **Helbide elektronikoa gaitua.**
- **Erantzukizunpeko deklarazioa** (EKAB agiriaren formularioa beteko du). Horren bidez, lizitatuak adierazten du betetzen dituela kontratatzeko eskatutako baldintzak, eta, zehazki, agiri honetan zehaztutakoak, eta hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia duela. Konpromisoa hartzen du kontratazio-organoak eskatzen duen edozein unetan aurkezteko, eta, nolabehar ere, esleipen-proposamena bere alde egiten badu, esleipenaren aurretik aurkeztuko ditu.

Adierazpenaren edukia aurreikusitako ereduaren arabera izango da, eta eredu hori aldatzen dutenak lizitaziotik kanpo uzteko kausa izan daitezke.

- **Eranskinak, hala dagokionean (ikus 17. klausula, ereduaren baldintza-agiriaren I. atalean).**
Proposamenak aurkezteko azken eguna izango da legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzearen eguna.

B GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Lizitatuak **paperezko euskarrian eta euskarri informatikoan (CDan edo DVDan)** aurkeztuko dute eskaintza hori, eta ez dute inolako ere jaso behar beren eskaintza ekonomikoari buruzko dokumentu garrantzitsurik, ez eta formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideen buruzko alderdirik ere. Honelako informazioa barneratzea **lizitaziotik baztertzeko arrazoi** izan daiteke.

Lizitatuak egindako eskaintzak ondorengo dokumentuak barneratuko ditu, Baldintza Teknikoen Agiriko 17 atalean zehaztutako epigrafeekin eta adierazitako hurrenkeran.

C GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Honako dokumentu hauek bildu behar dira:

- 1.- Eskaintza ekonomikoa, baldintza-agiri honetako II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
(Baldintza-agiri honetako eranskinetan ezarritako ereduak bete ezean, eskaintzak lizitaziotik baztertu ahalko dira.)
- 2.- Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa (proposamen ekonomikoa izan ezik), agiri honen VIII. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

23.4.- Aurkezteko lekua:

- **Entitatea:** HAURRESKOLAK PARTZUERGOA.
- **Helbidea:** Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina, 1
- **Herria eta posta-kodea:** Eibar – 20600

23.5.- Eskaintza postaz igorri gero, hala egin dela abisatzeko bitartekoak:

- Telefonoa: 943.82.19.59
- Faxe: 943.12.07.37
- Epemuga (eguna eta ordua): 2020ko irailak 18ko 13:00 orduak arte.
- Helbide elektronikoa: ekonomia@haurreskolak.eus. (Eskaintzak postaz bidaltzen badira adierazitako epearen barruan, egun horretan bertan posta-bulegoan zein egunetan jarri den egiaztatu eta jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari posta elektronikoa bidez. Ezinbestekoa izango da ere telefonoz jakinaraztea hurrengo zenbakira deituta, 943 82 19 59. Mezuari erantsiko zaio posta-bulegoan entregatu dela egiaztatzen duen kopia eskaneatua. Bertan, datu hauek jaso behar dira: zer bidali den, noiz (eguna eta ordua), igorlea, hartzailea eta posta-kodea). Betekizun bi horiek betetzen ez badira edo eskaintzak jasotzeko finkatutako epea amaitutakoan jasotzen badira, ez dira onartuko.

23.6.- Lizitzaileak zenbat denboratan eutsi behar dion eskaintzari: bi (2) hilabete, eskaintza ekonomikoa irekitzen denetik zenbatzen hasita; horri beste hamabost egun baliadun gehitu beharko zaizkio, SPKL-aren 149.2 artikuluan aipatutako irizpideak (gutxiagizko eskaintzak) bete behar direnean.

23.7.- Aldaerak onartzea: Ez.

23.8.- Eskaintzak jendaurrean irekitzea: Bai.

C gutun-azala irekitzeko lekua: Kontratatzaillearen profilean argitaratuko da.

24.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, haien garrantziaren arabera, handienetik txikienera, eta eman zaien haztapenaren arabera. Guztizko puntuazioa: 100 puntu (a) eta b) letretako multzoei dagozkien haztapenen baturak eta guztizko puntuazioak berdinak izan beharko dute beti):

a) Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak: 55 puntu.

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATZEKO ASPEKTUAK)	GEHIENEZKO PUNTUAK
1.- Aholkularitza-zerbitzuen prezioa, BEZik gabe	20 puntu



2.- Erantzute denbora	10 puntu
3.- Kontratuaren exekuziora atxikitutako pertsona kopurua	10 puntu
4.- Lantaldearen prestakuntza	10 puntu
5.- Lantaldearen euskera	5 puntu

1.- Aholkularitza-zerbitzuen prezioa, BEZik gabe. 20 puntu.

Lizitazaileak eskainitako prezioa, gehienez 20 puntu.

Eskaintza ekonomiko baxuenari 20 puntu emango zaizkio.

Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Eskaintza baxuenaren zenbatekoa}}{\text{Baloratu beharreko eskaintzaren zenbatekoa}} \times 20$$

2.- Erantzute denbora. 10 puntu.

Txostenak egiteko, kontsultak egiteko, zalantzak argitzeko, dokumentuak berrikusteko ... eskaerei erantzuteko aurreikusitako denborari dagokio. Erantzute denbora modu honetan kalkulatu da:

Erantzute denbora (egunetan) laburrena duen enpresa lizitazaileari 10 puntu emango zaizkio.

Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Erantzute denbora laburrena duen enpresaren erantzute denbora (egunetan)}}{\text{Baloratu beharreko enpresaren erantzute denbora}} \times 10$$

3.- Kontratuaren exekuziora atxikitutako pertsona kopurua. 10 puntu.

10 puntu emango zaizkio kontratura pertsona gehien atxikituta dituen enpresa lizitazaileari.

Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzan atxikitutako pertsona kopurua}}{\text{Pertsona gehien atxikituta dituen enpresan atxikitutako pertsona kopurua}} \times 10$$

4.- Lantaldearen prestakuntza. 10 puntu.

Baldintza Teknikoen Agiriko 5. atalean zehaztutako gutxieneko izaerarekin lantaldeari eskatutako prestakuntzaren gaineko gehikuntza baloratuko da, lote bakoitzaren xedeari dagokionez:

- 200 orduko edo hortik gorako master edo ikastaro bakoitzeko, gutxienez master bat edo goi-mailako ikastaro bat eskatzen denetik aurrera = 2 puntu, gehienez 6 puntu.

$$Puntuak = 2 \times (\text{Eskaintzaren kopurua} - 1)$$

- 100 ordu edo gehiagoko eta 200 ordu baino gutxiagoko ikastaro bakoitzeko = puntu 1, gehienez 2 puntu.
- 1. lotea: 50 ordu edo gehiagoko eta 100 ordu baino gutxiagoko ikastaro bakoitzeko = puntu 1, gehienez 2 puntu.
- 2. lotea: 50 ordu edo gehiagoko eta 100 ordu baino gutxiagoko ikastaro bakoitzeko, 1. loterako, eta erakunde ziurtatzaileak egiaztatutako DPZko ziurtagiri bakoitzeko, 2 = 1 puntuko loterako eskatutako DPZko ziurtagiri baten gutxienez aurrera, gehienez 2 puntu arte.

$$Puntuak = 1 \times (\text{Eskaintzaren kopurua} - 1)$$

5.- Lantaldearen euskera. 5 puntu.

Euskara C1 titulazioa edo goragokoa, lantaldeari atxikitako pertsonaren batean = 5 puntu

Titulazio hori duen inor ez badago, 0 puntu emango dira atal honetan.

b) Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak eta balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak: 45 puntu.

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATZEKO ASPEKTUAK)	GEHIENEZKO PUNTUAK	AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
<u>1.- Zerbitzuaren kalitatea eta funtzionaltasuna:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Jarraitu beharreko metodologia - Kontratuari atxikitako taldea 	<u>20 puntu</u> 10 puntu 10 puntu	Haurreskolak Partzuergoari eman beharreko aholkularitza-zerbitzuaren funtzionaltasuna eta moldagarritasuna deskribatzen dituen memoria teknikoa.
<u>2.- Lan-programa:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Lana antolatzea eta planifikatzea - Esleipendunaren jarduketak 	<u>10 puntu</u> 5 puntu 5 puntu	Lan-programaren deskribapen-memoria.
<u>3.-Harreman eta komunikazioetan euskararen erabilera:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Administrazioarekin harremanak izango dituzten pertsonen euskararen erabilera. - Euskararen erabilera 	<u>10 puntu</u> 5 puntu 5 puntu	Haurreskolak Partzuergoaren eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazioen ezaugarri buruzko azalpen-memoria. Atal honetan ez da titulaziorik puntuatuko, ez



dokumentazioan, ziurtagirietan, txostenetan ...	aktetan,	bada administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzea.
4.- Informazio-sistema:	5 puntu	Esleipendunaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko informazio-sistemaren deskribapen-memoria.
- Haurreskolak Partzuergoaren eta esleipendunaren arteko harremana gauzatzeko modua.	5 puntu	

25.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK BATUTA, GUTXIENEZ LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIO-TARTEA:

SPKL-ko 146.3 artikulua araberako, balorazio orokorrerako onartuak izateko, formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideetan, lizitatzailen gutxienerako puntuazio bat lortzea eskatuko da. Hortaz, 25 puntu erdiesten ez dituzten eskaintzak Kontratazio Mahaia ez ditu kontutan hartuko.

26.- GUTXIEGIZKO BALIOAK DITUZTEN ESKAINTZAK:

Bai. Administrazio Publikoen kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onartzen duen urriak 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 85 eta 86 artikuluetan zehazten diren kasuetan, eskaintzek gutxiegi balioak aurkezten dituztela kontsideratuko da. Gutxiegi balioak dituzten eskaintzak direnean, SPKL-aren 149.4 artikuluan ezarritako prozedura beteko da. Gutxiegi balioak dituzten eskaintzak ez dira sartuko prezioen balorazioan, kontratazio-organoak onartu ezean, eta aurrez irizpide horiek justifikatu ezean.

27.- DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK: Dokumentu administratiboak kontratua adjudikatu aurretik aurkeztu beharko dira.

28.- ENKANTE ELEKTRONIKOA. Adjudikazioa egiteko, enkante elektronikoa egingo da, honako elementu hauen arabera: Ez da egingo enkante elektronikorik.